


Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Gandhi ala dandi?



Mahatma Gandhi (1869-1948) 1906an, Hegoafrikan abokatu zen garaian, ezagun egin zuen janzkera eta ohitura soilak erabiltzen hasi baino lehen.

LONDRES, 1888. Mahatma Gandhi 18 urteko indiar gaztea Inner Temple eskolara iritsi zen zuzenbide ikasketak egitera. Ordura arte, jaioterrian, Gujarat eskualdean ohikoak ziren turbana, alkandora luzea eta praka zabalak eraman ohi zituen soinean, baina

Inglaterra erdiko klase europarren janzkera eta jarrera hartzea erabaki zuen. Besteak beste, dantza eta elokuzio eskolak hartu zituen.

Ikaskide batek, indiar jatorrikoa bera ere, halaxe deskribatu zuen Gandhi gaztea: “Eskuilaz eta kontu handiz distirarazten zuen zetazko kapela luzea zeraman, alkandoraren lepoa almidoiztatua, ostadarraren kolore guztiak zituen gorbata deigarria eta kalitate handiko alkandora marraduna. Gandhik jaka, barneko gurutzatua, harekin ondo ematen zuten praka ilun marradunak, bernizezko botak eta azpantar laburrak jantzi ohi zituen. Larruzko eskularruak eta zilarrezko burua zuen eskumakila eramaten zituen beti”.

1893an abokatu gisa lan egitera Hegoafrikara joan zen eta han ere Londresen hartutako janzkerari eutsi zion, xehetasunen bat gorabehera. Bezero gehienak merkatari indiarrek zituen eta haiekin identifikatu nahian bere itxurari ukitu indiarra ematea erabaki zuen: negozio-gizonen traje txukunari turbana erantsi zion.

1913tik aurrera, jantziak erantsi baino, janzkera murrizten eta soiltzen hasi zen. Urte hartan, Hegoafrikako gobernu indiar etorkinen eskubideak murrizten hasi zen. Gandhi lan kontuekin eta eskubide zibilekin zerikusia zuten auzietan lan egiten hasi zen eta idolotzat zeukan Tolstoiren eredu jarraitu zuen. Errusiar idazleak nekazari bezala bizitzea eta janztea erabaki zuen.


1913ko abenduaren 22an Pieter Maritzburg espetxera askatu berri zituzten preso indiarrei ongi etorria egitera hurbildu zenean, belaunerainoko kotoizko tunika eta nekazariak eraman ohi zuten *lungi* izeneko gona zituen soinean. 1948an New Delhin hil zutenean bezala.

Arrastoak

Jende oldeak Kapera Sixtinoa hondatzen ari dira

MICHELANGELO BUONARROTIK Vatikanoko Kapera Sixtinoaren sabaian egindako margolanak arriskuan daude. Urtero lau milioi bisitari jasotzen ditu artelanak eta, ondorioz, hariz, zuntz sintetiko eta hilez osatutako hautsak pinturak estaltzen ditu. Hauts horrek, gainera, airea iragazte-

ko erabiltzen duten makina buxatzen du. Horregatik Consiglio Nazionale delle Ricerche delakoak Kapera Sixtinoa hiru dimentsiotan irudikatuko lukeen erreplika birtuala egitea proposatu du. Helburua ez litzateke egoitza publikoari ixtea, bisitari kopurua murriztea baizik.



WWW.PONTUALI.COM